

## Aurkibidea:

- TXISTU ONLINE: Deskribapena eta justifikazioa ..... 2
- Alderdi pedagogikoak ..... 4
- Alderdi teknologikoak ..... 6
- Musika-moldaketak ..... 7
- Musika-piezak aukeratzeko irizpideak ..... 7
- Musika-piezen sekuenziazioa ..... 8
- Musika-piezen instrumentazio estiloen arabera ..... 9
- Sortzaileak .....11
- Lan-taldeko partaideak ..... 13

# TXISTU ONLINE, DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkezten dugun materiala, "Txistu online" deituko duguna, txistua eta danbolina jotzen ikasten hasteko ikus-entzunezko materiala da. Hemendik aurrera txistuari buruz ariko garenean beti txistua eta danbolinari buruz ari gara. Proiektua TXISTU BZ taldeak azkeneko bost urteotan garatu du. Zeregin honetan askotariko diziplinen taldea aritu da lanean: musika-eskoletan eta kontserbatorioan aritutako bi txistu-irakasle, instrumentuko interprete profesional bat, konpositore bat, hezkuntza orokorreko maisua musikaren irakaskuntzan espezializatua eta kudeatzaile espezialista bat.

Proiektua Musika-Eskoletara, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzara bideratuta dago. Interaktiboak diren hogeita hamasei musika-piezei dagozkien beste horrenbeste bideoz osatuta dago -- kanta, dantzak eta musika instrumentala -- Musika-pieza horien bidez eduki didaktiko ugari landu eta sendotu egiten dira: irakurketa eta idazketa, musika-formak, teknika instrumentala, inprobisazioa, memoria, musika- eta dantza-generoak, musika-tresnari buruzko historia, instrumentu-kideak eta abar. Piezak musika tradizional, antzinako musika eta ezaugarri didaktikoaren errepertoriokoak dira. Antzinako musikarenak, esku bateko flautaren errepertoriotik hartuak dira (Errenazimentua eta Barrokoa) eta bere garaiko erara harmonizatuak daude. Gainerakoak, instrumentu hiru formatu eta hainbat estilotan banatuta daude: txistua eta piano/akordeoia, txistu-banda eta metal boskotea eta sekzio erritmikoa (pianoa, gitarra, baxua eta bateria).

Materiala hainbeste elementuz osatuta dago: tutoretza-bideoak, gida didaktikoa (10 unitate didaktiko), partiturak eta, pieza bakoitzari buruzko informazioa (jatorria, generoa eta beste ezaugarri hainbat), erreferentzia bibliografikoak, diskografia, interneterako loturak (bideoak eta audioak). Edukin nagusia ikus-entzunezkoek betetzen dute. Material honetan, musika-taldeen plano orokorrak ikus daitezke eta bere musika entzun, partiturak jarraitu (*scroll roll*), txistu eta silbotearen lehenengo planoak berezitu (baita pieza bakoitzean txistuarekin batera erabiltzen diren perkusio-tresnena ere) eta txistu-silbotearen *minus one* bideoak ikusi, pieza bakoitzaren abiadura aldatzeko aukera ere badagoelarik.

Material honen sorkuntza bi ikuspegitik justifikatzen da:

- **Musika-eskolak:** Kasu honetan, txistuaren ikaskuntzaren hastapenentarako dagoen material gaurkotuaren eskasia izan da arrazoa. Teknologi berrietan oinarritutako tresna berritzailea, erakargarria eta moldaeraza eskaintzea da motibazio nagusia; txistuaren irakaskuntza / ikaskuntza alorrean aitzindari izango den materiala eskaintzea bere lurralde

osoan, eduki multzoa sekuentzia progresiboan izango duena hezkuntza planetan erabilgarria suertatzeko. Ia musika-eskola guztietan dagoen instrumentua izanik, txisturako material honek irakasleen lana errazten du eta instrumentua ikasteko motibatzen du. Ikasleek material hau eskura izango dute edozein ordutan, une edo tokitan eta gailu ugarien bidez.

- **Oinarrizko Hezkuntza:** Gaur egun ikasleek erabiltzen duten musika-tresna flauta-eztia da. Material didaktiko hau, poxpolina DO eta FA tonuetan erabiltzeko pentsatua dago. Poxpolina, txistuaren bertsio egokitua da, ezaugarri parekoak dituena (arina, zulo txikiak, ...) eta ekonomikoki merkea. Aurkezten diren musika piezen ezaugarriak kontuan hartuz, Lehenengo hezkuntzaren lehenengo kurtsoetik DO tonuan dagoen poxpolinarekin hasia proposatzen da, laugarren mailan FA tonuan dagoen poxpolinaz aldatzea edo ordezkatzea gomendagarria delarik. Horregatik, lehenengo 12 musika-piezei dagozkien bideo interaktiboak DO tonuan dagoen poxpolinerako aurkezten dira. 13. piezatik aurrera, pieza guztien bideo interaktiboak FA tonuko txistu edo poxpolinerako dira, nahiz eta (13. piezatik 36.era) musika-pieza hauei dagozkien audioak ere sartuta dauden DO tonuko poxpolinez jo ahal izateko.

Irakaskuntza-maila honetan txistua, ikasteko instrumentu gisa, oso musika tresna egokia da praktikatzeko eta musika-interpretaziorako. Lehenik eta behin, doinu errazak oso azkar has zaitezkeelako jotzen. Bigarrenik, tresnaren ezaugarriak kontuan hartuta esku bat libre geratzen denez, Orff instrumentarium delakoa erabiltzeko aukera eskaintzen du eta beraz, musika eta psikomotritatea lantzearen ikuspegietatik aplikazio didaktiko oso interesgarriak ahalbideratzen ditu. Hirugarrenik, txistuaren praktikak eta erreperitorioak ikasleak gure folklorera hurbiltzen ditu, gure tradizioetara eta gure ondasun historiko-musikalera. Ikaslea gaur egungo Euskal Herriko musika-panorama eta errealitatearekin lotzen du (folklore, kontzertuak, musika-eskolak, erdi maila eta goi mailako kontserbatorioa ...). Lotura honetan ikus daiteke aipatzen dugun harremana. Bertako irudiak oinarrizko hezkuntzako, musika eskoletako eta kontserbatorioko ikasleen artean Nafarroan 2017ko ekainaren 21ean eskainitako kontzertuarenak dira:

[https://www.facebook.com/861681743910955/videos/1428843443\\_861446/](https://www.facebook.com/861681743910955/videos/1428843443_861446/)

Aipatu behar da ere, Katalunian, 2008-09 ikasturte ezkerotik lehen eta bigarren hezkuntzako ikasgeletan Flabiol-danbolinaren ikasketa progresiboki sartuz joan direla (gure txistua/danbolinaren parekoak) "A l'escola toquem el flabiol" proiektuaren bidez. Nafarroako Foru Komunitatean ere, duela zenbait urtetik, lehen eta bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxetan emaitza oso onez ari dira.

Bukatzeko, Euskal Herri osoan eta diasporan dagoen txistulari kolektibo askotarikoaren esku ere material hau oso aberasgarria izango litzateke trebeziak lantzeko eta orain arte ohikoak izan ez diren testuinguruetan interpretazioarekin gozatzeko.

## ALDERDI PEDAGOGIKOAK

### **A) HELBURUAK**

- Txistu/danbolinaren irakaskuntza/ikaskuntza sistema berria sortzea.
- Instrumentua jotzen ikasteko sekuentzia progresibo eta logikoa garatzea.
- Poxpolin/txistua hezkuntza orokorrean sartzeko ikasteko instrumentu gisa musika heziketaren edukiaren bloke guztien lanketa ahalbideratuz.
- Musika irudikatzeko kode konbentzionala hala nola musikaren osagarriak orokorrean ulertzea eta erabiltzea: melodia, erritmoa, harmonia eta forma.
- Pieza tradizionalak eta antzinako musikaren piezak ahoz interpretatu eta koreografia errazak dantzatzea.
- Sistemak eskaintzen dituen aukera interaktiboak erabiliz musika piezak interpretatzea.
- Instrumentua lantzen den hezkuntza mailekin (Oinarrizko hezkuntza eta heziketa bereziak) eta ingurune soziokulturalarekin (festa herritarrak, kontzertuak, musika-taldeak ...) harreman eta loturak sortzea.
- Txistua, musika estilo ezberdinak jotzeko eta musika formazio ezberdinetan parte hartzeko gai den instrumentu gisa baloratzea.
- Sistemaren barrenean dauden moldaketak, txistua eta gainerako instrumentuak (partiturak) modu errealean interpretatzea.
- Euskal Herriko eta beste herrietako nortasun eta kultura ezberdinen ondare artistiko kulturala osatzen duten elementuak modu zuhur eta kritikoan balioestea.
- Norberaren interpretazioarekin gozatzea aukera interaktibo bidez eta baita talde interpretazioen bidez ere.

### **B) EDUKIAK**

- Txistua eta bere teknika (arnasketa, soinuaren igorpena eta digitazioa). Musika eskoletan ardatz nagusi gisa eta ikasketetarako instrumentu gisa Oinarrizko Hezkuntzan.
- Euskal kulturaren ondasunari dagozkion garai eta estilo ezberdinetako musika-piezaz osatutako errepertorioa ezagutu eta txistuz/poxpolinez interpretatu.
- Musika irudikatzeko erabiltzen den kode konbentzionalaren oinarrizko funtzio eta erabileren ulermena baita musikaren osagarri nagusien oinarrizko ezagutza ere: doinua, erritmoa, harmonia, forma.

- Musika tradizionaleko eta antzinako musikaren abestiak eta dantza landu.
- Txistu/poxpolinarekin musika piezak interpretatzea ikus-entzunezkoak eta bitarteko informatikoak erabilia.
- Beste instrumentuak ezagutu (metalezko haize-instrumentuak, gitarra elektrikoa, bateria eta perkusiozko beste musika-tresna, pianoa, akordeoia, viola da gamba, flautan-eztia) eta piezak horiekin batera interpretatu.
- Poxpolin/txistuarekin (bakarrik edo beste instrumentuekin batera), ikastetxe, kontzertu, jaialdi, festa herritarretan, eta abarretan parte hartzea.
- Instrumentuaren bidez, ahoz eta gorputz-espresioaren bidez gozatzea eta espresio bide horiek aintzat hartzea bai norberak baita taldean ere.

### **C) EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

- Instrumentuaren oinarrizko teknika ezagutu eta praktikan jartzen du: arnasa ongi hartzen du, instrumentuari soinu garbia eta egonkorra ateratzen dio.
- Pieza txistuz/poxpolinez ondo jotzen du teknikari eta musika irudikatze osagaiei erreparatuz.
- Abestean ahotsaren baliabideak egoki erabiltzen ditu eta musika-piezak oinarri gisa hartuta koreografia errazak dantzatzeko gai da.
- Poxpolin/txistua ikasteko aurrerapen teknologikoekiko interesa agertzen du, elementu motibagarri gisa.
- Musika-pieza bakoitzerako adierazitako instrumentu errealekin melodiak interpretatzen ditu.
- Taldeko interpretazioetan gogotsu parte hartzen du, besteekin elkarlanean aritu konjuntuaren emaitza ona izan dadin.
- Norberaren eta taldearen lana aztertu eta autoebaluaratu egiten du.
- Inguruko adierazpen artistikoak ezagutu eta bizitzen ditu.

### **D) PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA**

Musika-eskoletan oinarrizko materiala da txistuaren ikasketei heltzeko, eta bai alde teknikoa nola interpretatiboa garatzen du modu progresiboan, ikus-entzunezkoen laguntzarekin, ikaslearen autonomiaren garapena erraztuz. Hori guztia, instrumentuaren berriazko errepertorioaren bidez.

Oinarrizko hezkuntzan proiektuko musika-pieza bakoitza, zuzenduta dagoen ikasturtearen edukien bloke guztien ardatza izango da. Horrela, pieza horietako bakoitzean musika-ulermena eta entzumenari dagozkien elementuak landuko dira, baita musika adierazpena, interpretazio eta sormenari dagozkienak ere.

### **E) JARDUERA-PROPOSAMENAK**

Lehen ere aipatu dugun bezala, material hau heziketa maila eta testuinguru ezberdinetarako egokia da. Oinarrizko Hezkuntzaren ikasketetarako Curriculumak heziketa artistikoan eduki-bloke batzuk ezartzen ditu. Eduki

horiek lantzeko planteatu daitezkeen jarduera asko material honen bidez landu daitezke. Material honetan proposatzen diren jardueretako batzuk honako hauek dira: bideoen bidez musika-piezetan agertzen diren instrumentuak bereiztea (denak batera ala banaka, instrumentuak isiltzeko dagoen aukera erabilia); irakurketa/idazketarekin lotura dituzten jarduerak, puzzle musikalak adibidez; instrumentua interpretatzea bideoen lehenengo planoak ikusita eta imitazioaren bidez (galdera-erantzuna; taldeka ...); ahozko interpretazioa proposatzen diren abestiak eta kanten hitzak erabiliz; tutoretzako bideoak (Internetarako loturak) ikusita dantza-koreografia errazak dantzatzea; audioen entzuketak eta bideoen ikusketa; memoria lantzeko jarduerak, e.a.

Aldi berean materiala ezin egokiagoa da ikasleak indibidualki praktikatzeko, horretarako tresna interesgarri eta erakargarria da zalantzarik gabe. Ikaslea Online aritu ahal da musika-talde oso batekin elarreraginean eta ikus- zein audio-parametro ugari manipulatzeko aukerarekin: musikariak kendu/ordeztu (txistularia, piano-jotzailea ...), abiadura aldatu, txistulariaren eskuen lehenengo planoak ikusi, partitura ikusi, e.a.

## ALDERDI TEKNOLOGIKOAK

Materiala, instrumentua jotzen ikasteko bideo interaktiboz osatuta dago. Bideo hauetara hainbat gailutatik irits daiteke (ordenagailuak, tabletak eta mugikorrak); horretarako erabiltzaileak, eduki horiek guztiak jasotzen dituen web orrian izena eman besterik ez du egin beharko.

Aurkezpen-bideoa ikusi eta entzun ondoren (demo), erabiltzailea, sistemak eskaintzen dituen aukera guztiei etekin egokia ateratzeko gai izango da.

Sistemak duen ahalmena eta elkarri eragiteko gaitasuna direla medio, hezkuntzaren esparruan, sistema ikasgelan baliatzeak erabiltzailearen parte hartzea bultzatuko du.

Aipatu bezala, material didaktiko guztiak, ikus-entzunezko materiala barne, web orrian kokaturik daude. Erabiltzailearentzat, beraz, doako zerbitzua izango da, erregistratu eta datu pertsonalekin alta eman besterik ez du egin beharko.

# MUSIKA-MOLDAKETAK

Musika-moldaketak, estilo eta instrumentu-talde askotarako egokituta daude.

## **1. Txistu eta instrumentu polifonikoa**

Txistu bat eta pianoa / akordeoia

## **2. Txistu-banda eta metal-boskotea**

Bi txistu, silbotea, atabala eta metal-boskotea (bi tronpeta, tronpa, tronboia eta tuba)

## **3. Modernoa**

Txistua(k) eta erritmo-sekzioa (pianoa, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta bateria)

## **4. Antzinako musika**

Txistua(k), silbotea(k), flauta-ezti baxua, viola da gamba /biolontxelo barrokoa eta perkusioa (udua, danbor baxua)

# MUSIKA-PIEZAK AUKERATZEKO

## IRIZPIDEAK

Txistuaren berezko erreperitorioari arreta berezia eskaintzea eta Europako toki eta garai askotan erabili den flauta-danborra taldeari dagozkion txistuaren musika-tresna kideen erreperitorioa ezagutaraztea izan dira musika-pieza hauek aukeratzeko bi irizpide nagusiak.

# Musika-piezen sekuentziazioa

TITULUA	EGILEA
1. SI-NFONÍA	Beethoven (7. sinfoniaren allegroa)
2. PABANA	Alfonso Iturria Amadoz
3. TALOTXIN 1	Herri-kanta (Sara)
4. LA, SI eta DO	Alfonso Iturria Amadoz
5. TALOTXIN 2	Herri-kanta (Nafarroa Beherea)
6. BUBA ÑIÑA	Herri-kanta (Sara / Lapurdi)
7. EZPONDAN BADIRE	Herri-kanta (Baztan)
8. FUEILLE NE FLOR	Nafarroako Tibalt I.a (1201 - 1253)
9. BRANLE SIMPLE	Thoinot Arbeau (1520 - 1595)
10. BINBILI BONBOLO	Kanta tradizionala (Baztan)
11. ROBOTA	Alfonso Iturria Amadoz
12. SOKA DANTZA	Dantza tradizionala (Izaba)
13. KADERA IANTZA	Dantza tradizionala (Luzaide)
14. CANARIES	Thoinot Arbeau (1520 - 1595)
15. BETRONIO TXIKIA	Dantza zaharra (Gipuzkoa)
16. ZAHAR DANTZA	Mutil-dantza (Baztan)
17. LA MORISQUE	Thoinot Arbeau (1520 - 1595)
18. ATZO IGANDEA ZEN	Kanta tradizionala (Lekaroz)
19. TONUZ ALDATZEN	Alfonso Iturria Amadoz
20. EZKARAIKO KONTRADANTZA	Dantza tradizionala (Errioxa)
21. GIPUZKOAKO HIMNOA	Gipuzkoako doinu zaharra
22. KANTIGA 111 - En todo tempo faz ben	Alfontso X.a <i>Jakituna</i> (1221 - 1284)
23. INGURU TXIKI	Dantza tradizionala (Leitza)
24. POR CONFORTER MA PE - SANCE	Nafarroako Tibalt I.a (1201 - 1253)
25. EZPATA JOKU TXIKIA	Dantza tradizionala (Durangaldea -Bizkaia)
26. KONTRAIANTZA	Dantza tradizionala (Nafarroa Beherea)
27. NEVER LOVE THEE MORE	Dantza tradizional ingelesa
28. ROBERT VEEZ DE PERRON	Nafarroako Tibalt I.a (1201 - 1253)
29. MANDO ZARRAREN DATZA	Mutil-dantza (Baztan)
30. AZALANDARE	Dantza zaharra (Gipuzkoa)
31. DANBOLIN DOINUA	Melodia tradizionala (Altsasu)
32. AINGERU BATEK MARIARI	Kanta tradizionala (Lapurdi)
33. EVESHAM - STICK DANCE -	Dantza tradizional ingelesa
34. WIDOW ARE YOU WAKEING	Eskoziako melodia tradizionala
35. ERREBERENTZIA	Dantza zaharra (Gipuzkoa)
36. SECOND TAMBOURIN CHI NOIS	Mr. Marchand (XVIII. mendea, Frantzia)



# MUSIKA-PIEZEN INSTRUMENTAZIOA ESTILOEN ARABERA

## 1. Txistu eta musika-tresna polifonikoa

1. SI-NFONÍA	Beethoven (7. sinfoniaren allegroa)
2. BUBA NIÑA	Kantu tradizionala (Sara / Lapurdi)
3. BINBILI BONBOLO	Kantu tradizionala (Baztan)
4. ROBOTA	Alfonso Iturria Amadoz
5. SOKA-DANTZA	Dantza tradizionala (Izaba)
6. KADERA IANTZA	Dantza tradizionala (Luzaide)
7. BETRONIO TXIKIA	Dantza zaharra (Gipuzkoa)
8. GIPUZKOAKO HIMNOA	Soinu zaharra (Gipuzkoa)
9. KANTIGA 111- En todo tempo faz ben	Alfontso X. <i>Jakituna</i> (1221-1284)
10. NEVER LOVE THEE MORE	Dantza tradizional ingelesa
11. WINDOW ARE YOU WAKEING	Eskoziako doinu tradizionala

## 2. Txistu banda eta metal-boskotea

1. EZPONDAN BADIRE	Kantu tradizionala (Baztan)
2. INGURUTXIKI	Dantza tradizionala (Leitza)
3. EZPATA JOKO TXIKIA	Dantza tradizionala ( <b>Durangaldea -Bizkaia</b> )
4. KONTRAIANTZA	Dantza tradizionala (Nafarroa Beherea)
5. AINGERU BATEK MARIARI	Kantu tradizionala
6. ERREBERENTZIA	Dantza zaharra (Gipuzkoa)

## 3. Moderno

1. TALOTXIN 1	Kantu tradizionala (Sara/Lapurdi)
2. LA, SI ETA DO	Alfonso Iturria Amadoz
3. TALOTXIN 2	Kantu tradizionala (Nafarroa Beherea)
4. ZAHAR DANTZA	Mutil-dantza (Baztan)
5. ATZO IGANDEA ZEN	Kantu tradizionala (Lekaroz)
6. TONUZ ALDATZEN	Alfonso Iturria Amadoz
7. EZKARAIKO KONTRADANTZA	Dantza tradizionala (Errioxa)
8. MANDO ZAHARRAREN DANTZA	Mutil-dantza (Baztan)
9. AZALANDARE	Dantza zaharra
10. DANBOLIN SOINUA	Doinu tradizionala
11. EVESHAM -STICK DANCE-	Dantza tradizional ingelesa

## 4. Antzinako musika

1. PABANA	Alfonso Iturria Amadoz
2. FUEILLE NE FLOR	Nafarroako Tibalt I.a (1201-1253)
3. BRANLE SIMPLE	Thoinot Arbeau (1520-1595)
4. CANARIES	Thoinot Arbeau (1520-1595)
5. LA MORISQUE	Thoinot Arbeau (1520-1595)
6. POR CONFORTER MA PESANCE	Nafarroako Tibalt I.a (1201-1253)
7. ROBERT VEEZ DE PERRON	Nafarroako Tibalt I.a (1201-1253)
8. SECOND TAMBOURIN CHINOIS	Mr. Marchand (XVIII. mendea, Frantzia)

# SORTZAILEAK

## Alfonso Iturria (Iruñea 1969)

Txistu goi mailako ikasketak Donostiako Kontserbatorio Nagusian burutu zituen 1993an eta flauta eztiako ikasketak Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorio Nagusian.

Txistu-irakaslea izan da hainbat musika eskolatan, Pablo Sarasate musika-kontserbatorio profesionalean eta Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian. 1997 urteaz geroztik Iruñeko Udalaren Joaquin Maya musika-eskolako txistu-irakaslea da.

1990ean, Egunsenti musika-taldearekin, *Egunsenti esperientzia* (musika eta dantza garaikidea) ikuskizuna egin du eta izen bereko CD grabatu ere. 1996an, Gasteizko antzoki nagusian ospatutako txistulari bakarlarien lehiaketan bigarren saria jaso zuen. 1997-98 urteetan, *Gozategiz blai* musika eta dantza ikuskizunean parte hartu zuen Aukeran dantza-talde eta Gozategi musika-taldearekin batera. Talde horren *Egunon* CD-aren grabaketan ere hartu zuen parte. Ataitz taldearekin, Iruñean 2000. urtean ospatu zen txistubanden lehiaketa irabazi zuen. Talde horrekin ere, hamaika kontzertu eman ditu eta *Maina Mikirri* ikuskizunari musika jarri (dantza tradizionala eta balet garaikidearen arteko bat-egitea). Kontzertu pedagogikoak eskaini ditu eta Anaya argitaletxeak bigarren hezkuntzarako argitaratu zuen CD hezitzailearen grabaketan parte hartu zuen. 2016an, *Xendrak* izeneko CD-aren grabaketan parte hartzen, bertan txisturako abangoardiako musika egiten duen Urtzi Iraizozek konposatutako lanak grabatu zituen.

1999an sortu zen geroztik, antzinako musika jotzen duen Danserie taldeko partaidea da, eta talde horrekin 2012an "*Lachrimae antiquae 1512 Aintzinako negarra (el renacimiento y la música en Navarra)*" CDa grabatu zuen.

## Urtzi Iraizoz Remiro(Lesaka, 1983)

Txistu-ikasketak jaioterrian bertan hasi zituen Santiago Irigoienekin eta Barañaingo musika-eskolan zein Iruñeko Pablo Sarasate Musika-Kontserbatorio Profesionalean jarraitu zuen. Txomin Agirregomezkorta, Amaia Domeño, Alfonso Iturria, Raul Medinabeitia eta Aitor Amilibia izan ditu irakasle.

Harmonia-ikasketak Pablo Sarasate Musika-Kontserbatorio Profesionalean hasi zituen Carlos Etxeberriaren eskutik eta Musikenen bukatu zituen.

Villabonan 2002an egindako Txistu Banden lehiaketan hirugarren saria jaso zuen eta *Durango hiria* lehiaketan bigarrena 2009an, *Zain* eta *Jostetan* lanekin.

2010etik *Garaikideak -musika garaikideko zentroko* partaide da. Bere lanak hainbat taldek jo dute (Nafarroako Orkestra Sinfonikoak, Muna hirukoteak, Garaikideak ensemble...). Bere musika, NUPko 2013-2014 ikasturtearen irekiera ekitaldian entzun zen eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamenduarekin elkarlanean aritu da ipuin musikalak martxan jartzeko. 2016an *Xendrak-txisturako musika berria* izeneko KD grabatu zuen, bertan bere azken urteetako konposizio-lana bildu zuen.

Gaur egun Iruñeko Pablo Sarasate Musika-Kontserbatorio Profesionaleko irakaslea da.

# LAN-TALDEKO PARTAIDEAK

**Alfonso Iturria Amadoz:** Iruñeko Joaquin Maya musika-eskolako irakaslea da eta hainbat musika-taldetan jotzen du.

**Urtzi Iraizoz Remírez:** Konpositore eta txistularia. *Garaikideak -musika garaikideko zentroko* partaide. Gaur egun Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionaleko irakaslea da.

**Beatriz Agirre Etxeberria:** Akordeoi goi mailako tituluduna da, txistularia eta lehen hezkuntzako irakaslea musika espezialitatean.

**Jose Javier Irigoyen:** Hainbat musika-taldetan jotzen du. Txistu irakaslea eta Lekunberriko Aralar musika-eskolako zuzendaria. Kontzertu hezitzaileen gidoilaria.

**Patxi Rodriguez Armenta:** Txistularia. Lankide Aurrezki Kutxan zuzendaria izandakoa, "Protección y técnica" enpresako finantzako zuzendaria eta "Lowen Haus GmbH" enpresa alemaniarrean kudeatzailea.